


GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA


Gizarte Segurantzako afiliazioak hazkunde erritmoari eutsi dio

Gizarte Segurantzaren afiliazioa guztira
Urte arteko aldakuntza tasa




Lau urtez jarraian kotizatzaile berriak gehitu ondoren, Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden pertsonen kopurua 943.987ra iritsi zen 2017ko amaieran. Urtetik urtera hurbilago dago 2008an zegoen kopurutik, garai hartan jaso baitzen EAEn afiliatuen mailarik gorena. Urteko batez bestekoan neurtuta, 2017ko gehikuntza %2,1 izan zen. Tasa horrek zertxobait hobetu ditu aurreko bi urteetako emaitzak eta azken hamar urteko zifrarik altuena da. Berriro ere, gehikuntza hori erregimen orokorraren afiliazioan oinarritu zen, beraren abenduko hazkunde %2,8 izan zelako, sistema osoarena nabarmen gaituz. Gertakari hori etengabe gertatzen ari da azken hilekoetan.


Gizarte Segurantzaren afiliatutako emakumeak
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzaren afiliatutako gizonak
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa industrian
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa zerbitzuetan
Urte arteko aldakuntza tasa



Berriro ere, ekonomiaren hiru sektore nagusiek portaera positiboa erakutsi zuten. Hiruren artean, zerbitzuen bizitasuna nabarmendu behar da, 2017ko batez bestekoan %2,1 areagotu zutelako beren afiliazioa, bai industriaren bai eraikuntzaren tasa %1,8 izan zen bitartean. Azken sektore horren kasuan, izan duen susperraldi nabarmena azpimarratu behar da, 2016ko emaitza %0,0 izan zelako. Hala ere, oraingo kopurua oraindik oso urrun dago higiezin burbuila lehertu baino lehen arloak zeukan kopuru maximoetatik. Alde negatiboenean, finantza jarduerak ez du oraingoz hondoa jo eta beste 666 afiliatu gehiago galdu ditu, sektorearen zerbitzuak modu digitalean eskaintzeko bideratzen ari den moldaketaren ondorioz.

Gizarte Segurantzari afiliatuta dauden lagunak

	2016ko abendua	2017ko abendua	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	925.291	943.987	18.696
Industria manufakturgileak	170.384	173.423	3.039
Merkataritza	138.854	139.178	324
Osasun arloko jarduerak	91.275	93.876	2.601
Hezkuntza	66.298	71.306	5.008
Ostalaritza	63.268	65.004	1.736
Administrazio jarduerak	63.237	65.548	2.311
Lanbide jarduerak	53.270	54.408	1.138
Eraikuntza	52.780	53.958	1.178
Administrazio publikoa	47.096	47.179	83
Garraioa	39.717	40.658	941
Etxeko langileak	31.121	30.911	-210
Bestelako zerbitzuak	28.956	28.807	-149
Informazioa eta komunikazioa	21.391	21.650	259
Finantza jarduerak	18.716	18.050	-666
Jarduera artistikoak	15.349	15.946	597
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	11.854	11.823	-31
Ur horniketa	5.672	5.887	215
Higiezin jarduerak	3.755	3.878	123
Energia horniketa	1.667	1.879	212
Erauzketa industriak	588	571	-17
Lurraldez kanpoko erakundeak	44	49	5